

Arratiko Zekorrak Rugby Taldeak jaia antolatu dau hilaren 28an

14. orrialdea

"Zeaniztarran arteko desafio mundiala" zapatuan, hilak 21

Izen hori ipini deusie hilaren 21ean, arrastiko 17:30ean, probalekuan egingo daben hiru probatako neurketeari. Hiru lagunek osotutako Zeanuriko hiru taldek hartuko dabe parte aizkoran, txokor batzean eta txingak eroaten. 15. orrialdea



Borja Estankonak disko barria aurkeztu eban Bilbon

16. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

143

2011ko maiatzaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Udal eta Foru hauteskundeak

Maiatzaren 22an Udal eta Foru hauteskundeak izango dira.

Horreen ostean, udal batzuetan alkatea aldatuko da: Igorren, Zeberion eta Diman berbarako, oraingo alkateak ez diralako berraro aurkezten. Beste herri batzuetan, orain alkate diranak euren partiduen zerrendaburu dira, baina horrek ez dau esan gura herri horreetan ez dala aldaketarik egongo, hori herritarrak esan beharko dabe.

Ubidetan ez dago zerrendabururik, zerrenda bakar batetik aukeratzeko dau jentek nori emon botoa. Hemen, barriz, nahiz eta alkatea

aurkeztu eta bere partiduak hauteskundeak irabazi, gertatu daiteke besteren bat izatea alkatea. Ez dago ezer ebatzita maiatzaren 22ko 20:00ak arte.

EAJ-PNVk, PSOEek eta PPK herri guztietan aurkezten ditue alkatezarako hautagaiak. Bilduk Ubiden ezik beste herri guztietan. Aldatuz Herri Plataforma Artean eta Igorre Danontzat Igorren be aurkezten dira.

Arratia, Ubide eta Zeberio alkategai guztien izenak ekarri doguz barruko orrietara. 5. orrialdea



Maiatzaren 22an Udal eta Foru Hauteskundeak izango dira.

ARRATIA

Korrikaren argazkiak

Arratiako jentearen Korrikan parte hartzearen testigantzea dira barruko orrialdeetara dakarguzan argazkiak. Arratiarrak lekukoa eroaten agertuten dira eta horren lekukotasuna emon gura izan dogu BEGITU. Giroa somatzen da, baita arratiarren partidetza handia, lasterketea gaubeko ordu txikietan izan bazan be.

Argazki ofizialez ganera, Korrika Txikin be lekukoa eroan eben batzuen argazkiak be lortu doguz. Txikienak be euskalakariak izan ziralako gurean. 10., 11. eta 12. orrialdeak



ARRATIA

Janlekuetako beharginak greban

Janlekuetako beharginen lan baldintzak hobetutearen aldeko burruka hiru-garren greba astean sartzean da. Gurean, leku batzuetan ez da zerbitzua eten, eta beste batzuetan eskola ordutegia aldatu egin dabe, edo gurasoak ez dabez umeak janlekuan itxi beharginak alkatasuna adierazoteko. Gehi-etan, Eusko Jaurilaritzak ipinitako gitxieneko zerbitzuak bete dira. 6. orrialdea

DIMA ETA LEMOA

Udabarrian kultura da protagonistea

Udabarrian kulturak daukan protagonismoa ikusi daitekegu Arteako maiatz kulturalean eta Lemoa eta Dimako kulturasteetan. Hilaren 23tik 28ra izango da Lemoan eta aitagarriena Oskorriren kontzertua da. Diman, maiatzaren 27tik bagilaren 3ra arte izango da kulturastea, eta hilaren 29an, antolatzailea dan Dimako Guraso Elkartearen 25. urteurrena ospatuko dabe. 16. eta 17. orrialdeak

ARRATIA
ZERBITZU INMOBILIARIOAK
Diman etxe barriak



Dima erdian.

Leku pribilegiatua. Oso eguzkitsua.

2011ko urtean zehar hasiko gara eraikitzen.

2 eta 3 gelako etxebizitzak bainugela bigaz.

Garajeak eta trastelekuak.

Hurbildu zaitez Igorreko Arratia Inmobiliariara eta informazioa emongo deusugu.

KANTU HERRIKOIAK

EGIRIÑAKO ARTZAIN
GAZTEAK

Egiriñako artzain gazteak maite nindula inuztan, beren mosuko berba gozoak zeruak ostu euztazan.

Ez dogu behar abesti loirik, ez dogu behar jolasik, ez dogu behar ez kantu santar aberetuten gaitunik.

Artzain gaztea hil egin dala hartu dot gaur albistia, nire ame[t]sen lora guriak betiko sikitu dira.

Gora mendiak, gora krutzia, gora artalde zuria, gora euskaldun sendi apala, gora eusko basetxea.

Nitzat mendia lainopean da ardiak aldendu dira, artzain gazteen mosu gorriak argizeritu ein dira.

Gora mendiak, gora krutzia, gora artalde zuria, gora euskaldun sendi apala, gora eusko basetxea.

Iturria: Bitoria Artetxe Ziarrusta (Zeanuri 1914-2006).

Paule Mendibil Uriarte (Zeanuri 1922-1984). 1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larraoetxea eta Ruper Lekuek jasoa.

Oharra: 1920. hamarkadako bertsoak.

Egiriñako artzain gazteak

E - gi - ri - ña - ko ar - tza - in gaz - te - ak mai - te - rin
- du - la i - nuz - tan, be - ren mo - su - ko ber - ba go -
zo - ak ze - ru - ak os - tu euz - ta - zan.
Ez do - gu be - har a - bes - ti loi - rik, ez do - gu
be - har jo - la - sik, ez do - gu be - har
ez kan - tu san - tar a - be - re - tu - ten zai - tu - rik.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Maiatzaren 16tik 22ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

Maiatzaren 23tik 29ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

Maiatzaren 30etik bagilaren Sera

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Maialen Egileor, Aitor Erdozia eta Irune Garzia.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.


Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Eskerrik asko bihotz-bihotzez

Itzela, ikaragarria, aparta, paregabea, hunkigarria, izugarria, bikaina. Adjektiboak botaten segidu daiket baina ez dago berbarik Arratiarrak Korrikari egindako harrea adierazoteko modukorik. Arratia euskalakariz bete zenden pasa dan apirilaren 16ko goizaldean eta benetan ezin da inola be deskribidu furgonetatik nik neuk bizi izandakoa.

Uleak tente ipini jatazan, hontzikara gorputzean sartu eta barru-barrutik negar malkoai eutsi nahi eta ezin. Furgoneta barruan abotsa bertan itxita Arratiako euskalakariek emon zenduena zelana edo halan bueltau nahian egon nintzan. Kilometro guztietan, tarte guztietan eta batez be herrietan jentea ahal ebana etenbarik emoten ebilan, Korrika berbea lau haizetara zabalduz, Euskalakarri garala eta izango garala adierazoz, Euskal Herrian euskeraz egin behar dala aldarrikatuz. Korrika aurretik egindako

lan eskerga ahazten da benetan holango erantzuna emoten dozuenean. Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

Ehunka mila euskalakarri ibili gara ttipi-tappa Trebiñun hasi eta Donostiaraino hamar egunez gau eta egun ibili dan Korrika 17an. Lekukoa eskuz esku pasauz, euskerea pausuz pausu aurrera eroanez herriz herri bete dogu Euskal Herria euskalakariz.

Eskerrik asko Arratiako Aek-aren izenean batzordeetan parte hartu dozueno. Eskerrik asko Korrika laguntzaileai. Eskerrik asko Korrika 17 gehien pozten dituana, Euskal Herriko milaka eta milaka lagun euskalakarri izatea. Aek-aren helbururik nagusia Euskal Herri osoa euskalduntzea da eta argi daukagu lana arlo desbardinetan egin beharra dagoala.

Alde batetik, sentipena daukagu. Horregaitik dago Korrika 17ren leloan maitatu berbea. Euskerea herriarena dala eta herritarren bihotzetan egon behar daua aldarrikatzeko. Eta hizkuntza maitatzen badozue bide erdia egina dozue eta danok maitatzea da gure helburua, euskerea Euskal Herritar guztien izatea.

Bestetik, ezagutza dogu. Horregaitik dago Korrika 17ren leloan ikasi berbea. Badakigu zenbat euskalakarri zabilze gure euskaltegietan ikasten eta praktketan. Eta ez dakien guztientzako dagoz zabalik ateak. Danok emon behar dogu ikasteko pausua. Euskerazko lehenengo pausuk batzuek, daukagun euskerea hobetuteko pausua besteok.

Eta azkenik, erabilera daukagu. Horregaitik dago Korrika 17ren leloan ari berbea. Hizkuntza erabilteko da. Darabilanak mantenduten dau bizirik eta erabilera egitasmoak bultzatzen doguz horretarako. Eta gure metodologian be erabilera dogu ardatz. Euskalakarriok egunero eta leku guztietan erabili behar dogu euskerea.

Baina behar horretan Aek-ekin egiten dauana zatitxu bat baino ez da. Gizarte osoaren lana behar dogu euskerea normalizetako. Euskalakarri izatearen filosofia erakunde eta taldeentzat be bada, administrazioentzat eta eragileentzat. Hizkuntzaren normalizazioa gizartearen eginbehar kolektiboa da. Euskalakarriok euskeraz bizi gura dogu eta hori da erakundeak bermatu behar deuskuena, danon artean bermatu behar doguna. Asko dago egiteko eta zuok, euskalakarriok, daukaguz orain lekukoa.

Baina ez ziran sorpresa bakarrik. Lehendabizikoa: Auzitegi Gorenak Sorturen inskripzioa ez onartzea; bigarrena, Auzitegi

2002ko Alderdien Legeak indarkeriari edota terrorismoari babes eraginkorra emoten eutsan alderdiaren ilegalizazioa baimendu eban. Teoria hau onartzen ez da gatxa eta, beraz, holan egin dabe euskal gizarteak eta alderdi politiko gehienak, indarkeriari uko egin deusienean edozein helburu politiko lortzeako giza eskubideen errespetuaren alde. Baina errealidadea beste gauza bat da eta Legearen helburu hori onartzen ez da horren erreza errealidadea kontuan hartuta.

Indarrean sartu bezain laster, Alderdien Legea arreta handiz aztertu dabe erakunde desbardinak eta euren kezkek azaldu ebezan giza eskubideen eta oinarriko askatasunen errespetuagazko: ea Legeak ez ete eban legez kanpo itxiko talde terroristen helburu bardinak dituen indar politiko baketsuak edota bermajudizial zorrotzagoak eskatuz.

Gero, Lege horren aplikazioaren ondorioz, indar politiko desbardinak, baina danak ezker abertzale historikoari lotuta, legez kanpo deklaratu dira - Euskal Herritarrok, Batasuna, ANV, EHAK - eta hautagai zerrenda asko be hauteskundeetatik kanpo. Ebatzi gehien honeek ontzat emon dira auzitegietan, Batasunari buruz Europako Giza Eskubideen Auzitegiak egin eban bezala.

2011. urteak sorpresa batzuk ekarri euskuzan: Sortu indar politiko barriaren aurkezpena, bere ilegalizazioa eta, azkenik, ezker abertzale historikoa, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba osatzen daben Bildu izeneko koalizioa.

Baina ez ziran sorpresa bakarrik. Lehendabizikoa: Auzitegi Gorenak Sorturen inskripzioa ez onartzea; bigarrena, Auzitegi

ERETXIA



GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko magistradua

Aukera guztiak hauteskundeetan

2002ko Alderdien Legeak indarkeriari edota terrorismoari babes eraginkorra emoten eutsan alderdiaren ilegalizazioa baimendu eban. Teoria hau onartzen ez da gatxa eta, beraz, holan egin dabe euskal gizarteak eta alderdi politiko gehienak, indarkeriari uko egin deusienean edozein helburu politiko lortzeako giza eskubideen errespetuaren alde. Baina errealidadea beste gauza bat da eta Legearen helburu hori onartzen ez da horren erreza errealidadea kontuan hartuta.

Indarrean sartu bezain laster, Alderdien Legea arreta handiz aztertu dabe erakunde desbardinak eta euren kezkek azaldu ebezan giza eskubideen eta oinarriko askatasunen errespetuagazko: ea Legeak ez ete eban legez kanpo itxiko talde terroristen helburu bardinak dituen indar politiko baketsuak edota bermajudizial zorrotzagoak eskatuz.

Gero, Lege horren aplikazioaren ondorioz, indar politiko desbardinak, baina danak ezker abertzale historikoari lotuta, legez kanpo deklaratu dira - Euskal Herritarrok, Batasuna, ANV, EHAK - eta hautagai zerrenda asko be hauteskundeetatik kanpo. Ebatzi gehien honeek ontzat emon dira auzitegietan, Batasunari buruz Europako Giza Eskubideen Auzitegiak egin eban bezala.

2011. urteak sorpresa batzuk ekarri euskuzan: Sortu indar politiko barriaren aurkezpena, bere ilegalizazioa eta, azkenik, ezker abertzale historikoa, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba osatzen daben Bildu izeneko koalizioa.

Baina ez ziran sorpresa bakarrik. Lehendabizikoa: Auzitegi Gorenak Sorturen inskripzioa ez onartzea; bigarrena, Auzitegi

Gorenak Bilduren hautagai zerrendak ez onartzea. Gero Konstituzino Auzitegiaren ebatzia Bilduri hauteskundeetarako atea zabalduz.

Zer gertatu da prozesu judizial honen zehar? Alde batetik, azpimarratu behar da aginte politikoak - Espainiako Gobernuak - bere ardurari aurre egin beharrean, aginte judizialaren eskuetan jari dituala auzi honeek. Gobernuak ebatzi eikean prozesurik ez zabaltzea: Sorturen inskripzioa eta Bilduren hautagai zerrendak onartzea besterik ez eukan. Politikoki ondo etorriko jakon, akaso, baina bere ebatzi horreekaz auzitegien prestigioa airean ipini dau. Gobernuak ez da neutrala izan, Gobernuak auzi honeei hasiera emon deutse beharrezkoa ez bazan be.

Zorionez, aginte judizialean be gizartearen aurkitzen dan zentzua aurkitzen da. Zeren eta, bai Auzitegi Gorenean eta baita Konstituzino Auzitegian be, epaile batzuek ondo ulertu ditue errealidade juridikoa, politikoa eta soziala. Eta hau ez da beti erreza. Oraindino gitxiago jasan dituen presinoak eta irainak kontuan hartzean badoguz.

Azkenean, zentzuzko emoitza; euskal gizarte lasaituko dauana eta idea guztien defenza zuzena erreztuko dauana. Orain da gizartearen garaia; orain danok daukaguz aukera bardinak; orain hasten da gure etorkizun politikoa.

Ez dago atxakiarik gauzak ondo ez egiteko; Bilduk be ardua handia dauka eta erantzun beharko deutso zentzutasunez eta ausardiak. Ezker abertzaleak euskal gizartearen fultrotik pasau beharko dau eta, gaudituz gero, etorkizun barria hemen izango dogu.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGIRUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Igurdialdia



Gaur egun "masaje" berbea zabaldu bada be, esangura horregaz gure inguruan oindino bizirik dirauan berbea dogu **igurdialdi**. Berez, osasun arloko profesionalak emoten daben tratamentuari esaten bajako be, sexu-harremanetan zein beste hainbat testuingurutan be erabili leiteke. Ganera, badauka bigarren adiera oso polita eta bizi-bizia: astinaldi, narruko... batuaz jipoialdi.

MIREN MADARIAGA
AEK-KO IRAKASLEA

LUMATUTEN

BENJAMIN
AURREKOETXEALandatxu
Marinela

Gure herian itsasbazteretik antzina etorritako sendiak eta abizenak egon badagoz. Hainbat Mendiz eta bailaraz osotutako letagin itxurako gure lur-zatiaren historian kapitainik eta marinelik euki badogu be, aspalditik ez da sortzean itsasoratzeko zaletasunik. Gaur egun marinela bat bakarrik dogu eta honek badaukaz bere urteak; marinela gosalaren zapora gazira eginak badagoz be beharrezkoa dabe txitean-pitean luzaroan lehorrean egotea, eta gureak hiru-lau urterik behin, hile pare bat edo, hemen lehorrean emoten dau.

Lehenago egun baten beragaz banriketan ibilteko aukerea izan neban eta baso bana ardaurrean geunkala itsasoko gorabeheraz berbaz hasi jatan. Ardaurrean edan ahala kontakizunak sakonagoak egiten hasi ziran eta halako baten holan esan eustan:

"Badakizu Benja, nire heziketea printzipio zorrotzetan oinarrituta da-goala. Gure aitak, gure gizarte-mailak besteak baino zorrotzagoak izatera denigortzen ginduzala sartu eustan buruan; zuk badakizu, -esaten eustan berak-, gu heriko etxagun handiene-

takoak garala.

Ni, sasoi haretan mutiko tentela nintzan, eta bihotz onekoa banintzan be nahiko gogorra be bai. Oso gazterik itsasoratu nintzan eta itsasontzian gure aitak erakutsitako hainbat gauza ahazten joan nintzan derrigorrez, beharrak aginduta.

Hasieran gure merkataritza Malaka, Siam, Sumatra, Borneo eta Filipinak artean egiten zan. Niretzat ezezagunak ziran lekuak gelditu barik bisitetan genduzan; europarra gitxitan sartutakoak, asko.

Sasoi haretako nire kapitaina "Ezker-ra", garaia ez bazan be, izaera gogorreko gizona zan; lami ibiltzen nintzanetan, eta hori sami izaten zan, bere laguntza izaten neban eta seguru dinotsut gaur egun bizirik banago berari esker dala.

Tonkin golkoan, esaterako, txinatar lapurrak zein mairu piratak, sami guztiak xehatu egin behar izaten genduzan".

Nire lagunak xehatu berbea esaten ebanean, agoa zarratuta eta ezpainak alboetara zabaldua, arpegi itxura gogorra ipintzen eban.

"Tonkin Asiako hego-ekialdeko frantsesen menpe egoan lurraldea zan, eta gaur egun ia osorik Vietnam-go iparralde da. Latitude haretan egozan mairu piratak oso kementsuak eta ausartak ziran; batez be Serasan ugarteetan eta Borneo ipar-ekialdean. Eurak brankak deituten dabezan itsasontzi arinetan guztiz armatuak etorten ziran gure aurka, eta xehatu, garbitu egin behar izaten genduzan. Guk eskerrak gure alde gauza on bat gitxienez bageunkala. Itsasontzia. Euren brankak arinak ziran, arin ibiltzen ziran ur gainean; baina gurea askoz be handiagoa, gogorragoa eta garaiera handiagokoa zanez abantaila handia geunkan".

Gau haretan historia asko kontau eustazan eta laster izango dozue horren bari. Zuok holan gura badozue.

ZERTZEAN



IÑAKI ITURRIOZ

1

Lehenago ebilena Zeaniko tranbian Levi's-ak jantzi eta noventan Audian Waka Waka entzunda Radio Marian arrotza izan zana Azkunan urian IPhonagaz eskuan dabil gaur Gran Vian.

2

Miss Sixty, Women' secret Stradivarius ehun euro gitxiago nobiaren erruz Ariel Excel Gel-a Nesquik, Aquarius dakianak jokatu dagiala zentzuz eta eztakiana dabilela kontuz.

Gaia jarrita: "Arratiako gizona"

3

Lehen Benidorm-eko beroagaz ito orain gurago ditu Praga ta Egipto goizez Kaiku esnea ácido oleico gauberako koltxoia viscoelástico nahiz ta ehun urterarte ez garen biziko.

4

Venus Williams eta Valentino Rossi Força Barcelona ta gora Leo Messi WI-Flak NET error-a emon arren kasi Softwareak ezin dau driver-a ikusi guztiok ezin dogu beti irabazi.

5

GPSak esanda Urrekoatxera injineru kimiko gustuko karrera Berlingo argazkiak igon Facebook-era kontua holantxik da gitxi gora behera: pausu bat aurrera ta hamabost atzera.

6

Lau txakur txiki boltsan eta bi MasterCard Dow Jones indizeak eginagatik krak mila amets buruan errealidade bat aldaketaren batzuk emon behar ontzat baina hori bai botoa betikoarentzat.

BEGI TXINDORRA

Maite Yurrebasok Borja Estankonarentzat egindako bideokliparen irudi bat da hau. Eskoietik ezkerrean plastilina egindako Borja Estankona, Jimmy Arrabit batera-jolea eta Itxaso Etxebeste baju-jolea agertuten dira. Hazur-haragitan ikusteko aukerea, Estankonak bere diskoa promozionetako emongo dauzan kontzertuetan izango dogu. "Hor leku bat" da kantuarren izena eta interneten ikusi daiteke bideoklipa osorik.

Gauz edota ilunpean gertatzen da bideo osoa. Plastilinazko personaje samurrak gauari egiten deusie aurre ameslari, eta eszenalekuaren ilunari musikea joz. Hauskorak dirudie, bigunak, baina ez daukie horren konzientziarik eta ausardiaz bizi dira. Hauskortasuna ei da eta, indarrak handiena.

Maite Yurrebaso igorretarra Madrilen bizi da. Han egiten dau behar animazioan, plastilinazko samurtasunagaz bizigarriagoa egiten porlanezko uri handia.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

 **Ortodontzia**
hagin klinika **Implanteak**
Estetika

Marina Urigoitia Añelkoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 25/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Iñaki
Martin Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
e-mail: margoiza@euskonet.net

ARRATIA

Alkate gehienak aurkezten dira barrero hauteskundeetan

Maiatzaren 22ko Udal Hauteskundeetan arratiarrak nortzuk egongo diran udal gobernuan ebatziko dabe.

Erredakzioa

Alkategaien artean, oraingo alkate batzuk dagoz: Arantzazuko Begoña Llano (EAJ-PNV), Areatzako Josu Basozabal (EAJ-PNV), Arteako Alberto Etxebarria (EAJ-PNV), Bediako Aitor Sorriketa (EAJ-PNV), Lemoako Jabier Beobide (EAJ-PNV), Zeanuriko Izaskun Sagarna (EAJ-PNV) eta Ubideko Joxan Pagola (Alkarlanien), hain zuzen be. Diman, Igorren eta Zeberion, barriz, ez dira aurkeztuko oraingo alkateak. Diman, EAJ-PNVko zerrendaburua Josune Gorospe da, eta ez Joserra Garai oraingo alkatea. Igorren, Galder Olibares ez da aurkeztuko. Bilduko zerrendaburua Igorren Beñat Anzola da. Eta Zeberioko alkategaia EAJ-PNVren zerrendetan Monserrat Petralanda da eta ez oraingo alkatea, Humberto Perea. Alderdiai jagokienean, herri guztietan aurkeztuten dira EAJ-PNV, PSOE eta PP. PSOEek eta PPK herri guztietan zerrendak aurkeztu ahal izateko, herrian bizi ez dan jenteagaz osotu ditue zerrendok kasu gehienetan. Bilduk Ubiden izan ezik herri guztietan aurkeztu ditue zerrendak. Ubiden, Alkar-

lanien plataformea aurkeztuten da. Artean eta Igorren, bosgarren zerrenda bat be badago. Aldatuz Herri Plataforma (AHP) Artean, eta Igorre Danontzat Igorren, hain zuzen be.

Ubideko berezitasuna

Ubidek 250 herritar baino gutxiago ditu eta horregaitik, herri honetan alkatea eta zinegotziak modu desbardinean aukeratuten dira. Izan be, papeleta berean agertuten dira alderdietako hautagai guztiak eta hautesleak hautagaiak aukeratuten ditu eta ez partiduak. Ubiden lau alderdi aurkeztuten dira, beraz lau alderdietako hautagaiak papeleta baten doaz. Hautesleak lau hautagai aukeratzen ditu, zerrendako ordena edo alderdia kontuan hartu barik. Hau da, hautagai guztien artean gurago dituan laurai emoten deutse botoa.

Zeanurin alkatea andrazkoa izango da

Zeanurin, oraingo moduan, alkatea andrazkoa izango da, han, alkategai guztiak andrak dira eta. Igorren, barriz, danak dira gizonak. Dana dala, eta Ubide kontuan hartu barik (Ubiden zerrenda-

bururik ez dagoalako) gehiago dira alkategaien artean gizonak andrak baino. Izan be, 38 zerrendaburu dira 9 herritan, horreetatik 17 andrak (% 44,4) eta 21 gizonak (% 55,5).

Ubiden 20 hautagai dagoz: 7 andra (% 35) eta 13 gizon (% 65).

Alderdiai begiratu ezker, EAJ-PNVk Arratiako zerrendetan porzentaje hori % 44 andrak dira eta %55 gizonak mantenduten dau. Dana dala, PSOEren zerrendetan desbardintasun hori handitu egiten da. Horreetan, 6 gizon dira alkategai (% 66,6) eta 3 andra (% 33,3). Eta PPn andrazkoen porzentajea murriztu egiten da gehiago, 2 baino ez diralako zerrendaburu (% 77,7 da gizona eta % 22,2 andra). Bilduk, barriz, andren aldeko apostua egiten dau: hiru gizon (% 33,3) eta sei andra (% 66,6) aurkeztu dira alkate izateko. Arteako AHP eta Igorre Danontzat-en zerrendaburuak gizonak dira.

Ubiden, EAJ-PNVko 5 hautagaietatik 3 dira gizonak eta 2 andrak; PSOE eta PPren hautagaien artean gauza bera gertatzen da. Eta Alkarlanien-ek 5 hautagai ditu, 4 gizon eta andra 1.

Honeek dira gure eremuan aurkeztuko diran alkategaiak.

Arantzazu:

EAJ-PNV: Begoña Llano.
Bildu: Haritza Iturbe.
PSOE: Guillermo Barco.
PP: Felix Garcia.

Areatza:

EAJ-PNV: Josu Basozabal.
Bildu: Yazmina Beobide.
PSOE: Garbiñe Rodeño.
PP: Miguel Angel Alvarez.

Artea:

EAJ-PNV: Alberto Etxebarria.
Bildu: Miren Edurne Gumuzio.
Aldatuz Herri Plataforma AHP: Gaizka Agirre.
PSOE: Pedro Tejerina.
PP: Raquel Lansac.

Bedia:

EAJ-PNV: Aitor Sorriketa.
Bildu: Amaia Chantal "Ninbe".
PSOE: Miguel Ogueta.
PP: Salvador Granados.

Dima:

EAJ-PNV: Josune Gorospe.
Bildu: Rafael Ugalde.
PSOE: Felix Espinosa.
PP: Jorge Angel Menendez.

Igorre:

EAJ-PNV: Iñigo Uriarte.
Bildu: Beinat Anzola.
PSOE: Erwin Barba "Lukas".
PP: Ignacio Elorza.

Igorre Danontzat: Iñigo Undurra-

ga.

Lemoa:

EAJ-PNV: Jabier Beobide.
Bildu: Saioa Elejabarrieta.
PSOE: Unai Ortuzar.
PP: Gorka Basañez.

Zeanuri:

EAJ-PNV: Izaskun Sagarna.
Bildu: Anuska Emaldi.
PSOE: Jone Ranero.
PP: Maria Paz Basagoiti.

Zeberio:

EAJ-PNV: Montserrat Petralanda.
Bildu: Ana Belen Alberdi.
PSOE: Maria Mercedes Sanchez-Cruzado.
PP: Jaime Santamaria.

Ubiden zerrenda honetatik aukeratuko dabez hautagaiak:

EAJ-PNV: Asier Atutxa, Maria Aranzazu Jausoro, Eusebio Larrazabal, Amaia Artetxe, Jose Luis Ocerin-jaregui.

Alkarlanien: Joxan Pagola, Gizane Ibartutxi, Iker Saenz de Argandoña, Aritz Azkorbeitia, Oskar Martinez.

PSOE: Jose Pedro Milla, Purificación Saez, Xabier Fernandez, Vicenta Raquel Brito, Jose Luis Mansilla.
PP: Jose Manuel Gomez, Antonia Ibañez, Maria Mar Molina, Mario Molina, Carlos Bermejo.



www.ekinharriari.com

Erropa eta osagarriak

Ekin Harriari

Zer izan hura jantz!

Karmen kalea 11, Amorebieta-Etxano
(Bar Garamendiren ondoan)
Tel. 663 834 591. E-mail: salmentak@ekinharriari.com



Maiatzaren 22an Udal Hauteskundeak izango dira.

BEDIA

Babes lokaleko sei etxebizitza zozketatuko dira Errekaondon

Erredakzioa

Bediako Udalak Errekaondoko prezio tasautako sei etxebizitza zozketatuko ditu. Etxebizitzok amaituta egongo dira urte amaierarako eta 153.258 euroko prezioa izango dabe. Gara-jeak be erosi ahal izango dira 19.200

euroko gehieneko prezioan. Zozketan parte hartzeako epea zabalik dago maiatzaren 26ra arte.

Bediako herritarrek lehentasuna izan arren, Arratiako, Galdakaoko eta Bizkaiko gainontzeko herritarrek be aurkeztu leikiez parte hartzeako eskakizunak.

ARRATIA

Janleketako grebak erantzun handia gurean

Erredakzioa

Bigarren astea da janleketako beharginak greban dagozala eta gurean oihartzun handia izan dau. Zeberioko eskolan ez da janleku grebarik egon eta Artean hiru beharginetik batek egin dau grebea. Beste eskoletan, gitxieneko zerbitzuak bete dira eta gizartearen eragin handiko grebea izan arren, guraso batzuek beharginak ez eginda, ez dabez gitxieneko zerbitzuak be erabili.

Arratia Insitutuan, institutuko iturrien arabera, maiatzaren 12an "beharrera bueltau ziran janleketako beharginak astebete eta hiru egun greba egin ostean". Erabiltzailei kalterik gitxiene egiteko, institutuan ordutegia aldatu eben

eta otartekoak emon zituen.

Igorre, Areatza, Zeanuri, Lemoa eta Diman Eusko Jaurlaritzak ipinitako gitxieneko zerbitzuak bete ditue, hau da, Haur Hezkuntzako eta garraioiko ikasleentzat, eta greban jarraituten dabe aste bi egin ostean. Dimako eskolara Haur Hezkuntzako umeen gurasoak ez dabezala janlekura bialdu umeak jakinarazo deusie BEGITUARI eskolako iturriak.

Artean eta Zeberion zerbitzua mantentzen egin da

Artea eta Zeberioko eskoletan, barriz, zerbitzua arazo barik mantentzen egin da. Artean, hiru beharginetik batek egin dau grebea eta Zeberion ez dabe grebarik egin.



Greban jarraituten dabe janleketako beharginak.

IGORRE

CIE Automotive taldeak inoz baino irabazi handiagoak



GEAko langileak protestan Igorreko bidekurutzetan.

Erredakzioa

Urtearen lehenengo hiruhilabetekean CIE Automotive taldeak inoz baino irabazi handiagoak izan ditu. Izan be, urtailetik martira 18,9 miloe euro irabazi ditu, igazko lehenengo hiruhilabetekean baino % 79 handiagoak. Fakturazioan be, asko hazi da CIE Automotive aurten eta martira arte 488,8 miloe fakturatu

ditu, igaz baino % 26,8 gehiago.

Talde honek lantoki bat dauka Igorren, CIE Automotive Tarabusi, hain zuzen be.

GEAko beharginak burrukan jarraituten dabe

GEAko beharginak, barriz, 13:00etatik 15:00etara lanixtea egiten jarraituten dabe, martiaren 17an 7 behargin kaleratu

ebenetik. Mobilizazioak be ez dabez itxi eta horrreen artean Arratiko Zekorren kontrako rugby partiduak dagoz. Joanekoa maiatzaren 13an izan zan eta bueltakoa hilaren 20an izango da GEAn bertan. "Mobilizazioak gogortzea pentsetan dagoz beharginak eta egun osoko greben eta greba mugabakoaren aukerea ez dogu baztertu" azaldu deutso BEGITUARI Alex Azpiri LABekoak.

DIMA

Udalak Indusi karst-eko lurrak erosi ditu

Erredakzioa

Dimako Udalak Indusi karst-eko 124.925 m² erosi ditu. Lur honeetan Baltzolako kobak eta Axlora eta Jentilzubiko aztarnategiak dagoz.

Indusiko karst-ak 6 Km² inguru ditu eta bertan balio handiko elementuak dagoz, barbarako,

Baltzolako kobak, Barronbarro-Larraoari I eta II, Axlora kobako aztarnategia, Baltzola errekea eta Jentilzubi.

2010ean, Dimako Udalak babes bereziko eremua izentau eban zona hau eta Indusiko Karst-aren Iraupenerako Oinarriak eta Baltzola Kobaren Erabilera Publikorako Ordenamendua onartu eban. Izan be, udalekoen ustez, karst honek daukazan balioakaitik, beharrezkoa dau araudi bat, erabilera publikoak, baliabideok arriskuan ez ipinteko. Udaleko iturrien arabera, arau honek ondo garatuteko eta karst-aren balioak mantentuteko erosi dauz Dimako Udalak lurrok.

ARRATIA

BEGITUK PAPELA ALDATU DAU ZENBAKI HONETAN

Erredakzioa

BEGITUREN irakurleak konturatuko ziran bez, 143. zenbaki honetan papela aldatu dau BEGITUK. "Papela hau askozaz ekologikoagoa da eta, aldikariaren kalidadeari kalterik ekarriko ez deusala eretxita, aldaketea egitea erabagi dogu" azaldu deutso BEGITUARI Zertu Kultur Elkarteak.

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktuak
Lehendakari Agirre, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 639 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

ekin s.l.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Erreka Garraioak
Mugihorra 629 465 335
Branitz auzoa, 12 LEMON
Tfnoa: 94 631 50 02 Faxa: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

bildu arratia



GURE ALKATEGAIAK:

ARANTZAZU

HARITZA
ITURBE IZAGIRRE

AREATZA

YAZMINA
BEOBIDE ALDAPE

ARTEA

MIREN EDURNE
GUMUZIO AÑIBARRO

BEDIA

AMAIA
CHANTAL ARRARTE

DIMA

RAFA
UGALDE IRAGORRI

IGORRE

BEINAT
ANZOLA URIARTE

LEMOA

SAIOA
ELEJABARRIETA AMORRORTU

ZEANURI

ANUSKA
EMALDI GOROSTIAGA

ZEBERIO

ANA BELEN
ALBERDI EGILUZ

maiatzaren

22 an

emon

botoa



ZEANURI

Etxebizitza tasatuen kudeaketa ez egokia salatu dau oposizinoak

Zeanuri goitik ikusita.

Erredakzinoa

Zeanuriko zinegotzi independenteak eta EAKoak etxebizitza tasatuen eraikuntzan atzerapena egongo dala salatu dabe eta Udal Gobernuak egindako hutsai egozten deutsee atzerapen hori.

"2011ko maiatzaren 9an egin zan plenoan oposizino zinegotziok salatu genduan moduan, etxebizitza tasatuko egitasmoak akats urbanistiko larriak ditu eta udalaren kudeaketa ez egokia erakusten dau" dinoe oposizinoak. Zinegotziok salatu dabaren arabera, "udalak berak garatutako agiriak ez dabez betetzen Zeauriko Ordezko Aruak eta orain lege urbanistikoaren aldetik egitasmo guztia noraezean

dago".

"Ez dot ikusten egoki ezer esatea. Guk aruak beti betetzen doguz" erantzun deutso BEGIturi Izaskun Sagarna Zeauriko alkateak. Oposizinoaren arabera, barriz, "nabarmena izan da be, udalak promotore jakin bateri eraikuntza esleitu nahia". Alkateak, hori gezurtatzen dau "ez dogu ezagutzen promotore hori" esanez. Promotore horren izendapena EAJ-PNVko botoakaz eta oposizinoaren kontrakoakaz onartu zan. "Esan beharra dago promotore hori epaitegiak zigortu ebela 2008an, Laudioko Udalaren demanda baten ondorioz, herri haretan etxebizitza tasatuak libre moduan salduitegaitik" gehitu dabe oposizinoak.

ARRATIA

Maiatzaren 31ra arte eskatu daiteke kamisetea**Erredakzinoa**

BEGITU Aldizkariaren kamisetea hilaren 31ra arte eskatu daikie begitu-lagunak. Data hori baino lehen, neurriaren barri emon beharko deutesie Zerturi 649 979 115 telefonora deituz edo begitu@topagunea.com-era idatziz. Azaldu behar dana da ea gizon ala andrazkoarena gura dauan eskatzaileak eta neurria (XS, S, M, L, XL, XXL).

Gogoratu, begitu-lagunak ez diranak epe honen barruan begitu-lagun egin ezker, kamisetea, *Arratia Inguruko Hiztegia* eta aurreko urteetan Zertuk argitaratutako produktuak jasoko dituela.

Irakurleentzako eskeintzea

Egun berean, hilaren 31n, amaituten da Areatzako bainuetxeak BEGIturen irakurleai egiten deutesen % 15eko deskontua. Horretarako 140, 141 eta 142 zenbakietako kupoiak eroan behar dira bertara.



Arin ibili kamisetea eskatuten!

AREATZA

Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak Izaskun Astondoa saritu dau

Izaskun Astondoa.

Erredakzinoa

Sari honegaz Piroteknia Astondoako Izaskun Astondoa gerentearen lana eta ibilbidea saritu gura izan dabez Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak. Areatzakoaz ganera, Maria Victoria Cañas (Bodegas Diez-Caballero) eta Iberdrola enpresek be jaso eben V. edizino honetako sariak.

Astondoak Emakundeko zuzendaria dan Maria Silvestreren eskutik jaso eban Dora Salazarrek egindako eskultura. Sari honek zuzendarien, ibilbideen instituzino eta enpresarien lana gosten dabe eta batez be emakumeen integrazinoarako egindako esfortzuak.



Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korrrenteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea



PSE-EE
PSOE



Arratia Aldatzen




Unai Ortuzar

17. KORRIKA

Arratiako Korrikaren lekukoa

Korrikaren lekukoa alkari pasau eutsanaren lekuko dira hona dakarguzan argazkiak. Denporea pasau da argazkiok eskuratu doguzanerako, baina ikusita zenbateko inplikazioa euki eban hemengo jenteak Korrikeagaz, interesa ez dabela galdu eretxi deusagu eta orrialdeotara dakarguz. Arratiako jentearen partaidetzearen lekuko.



Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igarre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igarre
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilergoak, Hezkuntza zikloak

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/


PINTURA TAILERRA

areatza
pintura y decoracion, s.l.

Pintura lanak
Goi mailako dekorazioa
Industrialia
Fatxadak
Papereztatzea

eskatu aurrekontua konpromiso barik

Tallerra 94 426 16 58
© 639 769 780 - 629 435 895
BASAURI



arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tutak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorriko Industriak, Pab. 07
Tel./Fax 94 875 82 76
819 734 516
48143 Igore Bidasoa

Erdu herria beste modu baten egitera!!!

Emon Botoa

ALDATUZ HERRI PLATAFORMA



Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola



Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

RUGBY TABERNA



•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak



ARRATIKO ZEKORRAK

arratiako.zekorrak@gmail.com
<http://santxisime.blogspot.com/>

PINTURA TAILERRA



areatza
pintura y decoración, s.l.

Pintura lanak
Goi mailako dekorazioa
Industrialia
Fatxadak
Paperezatzea

eskatu aurrekontua konpromiso bank

Tailerra 94 426 16 58
☎ 639 769 780 - 629 435 895
BASAURI

OPEL

Ibaigane, s. Coop. Ltda.

Esturion, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telefono: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

ellauri
HOTELA

Naturea convida

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Alzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

Zugaitik BEGITUten dogu

A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com



Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igoerre



INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04



Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean
Tlfnoak: 94 673 92 05 / 656 71 61 83
info@interklabe.com

25 URTE

TXIRRINDULARITZEA

Inoz baino ikasle gitxiago ziklismo eskolan

Krisi ekonomikoa eta Arratian kirol eskeintza ugaritu egin dala izan daitezke Juan Mari Zurinaga, Arratiako Ziklista Elkarteko presidentearentzat "aurten inoz baino ikasle gitxi" izateko arrazoi bi. Dana dala, Opel Ibaiganen badagoz gailentzen diranak: Karina Aguilera eta Mikel Zarrabe kadeteetan edo Egoitz Fernandez eta Ander Barrenetxea juniorretan.



Kadete taldeko neskek.

Erredakzioa

Aurten ikasle gitxi, orduan.

Eskolan zortzi ume bakarrik dagoz, oraindino akaso apuntako dira batzuk, baina egundo baino gitxiago daukaguz.

Zergaitik hain ikasle gitxi aurten?

Kirol errezagok ikusten dabez hor-

tik, futbola, barbarako. Eta kirol eskeintzea asko handitu da Igorren. Orain danon artean errepertidu behar doguz umeak. Eta txirrundalaritza kirol gogorra eta garestia da. Bizikletak karuak dira, nahiz eta eskolan badaukaguzan ikasleai ixteko.

Kadete, junior eta 23 azpikoe-tan be gitxi dira?

Kadete mailan 3 neska eta 4 mutil daukaguz. Neskak ondo dabiz, batez be Karina Aguilera. Eta beste neskak be asko hobetu dabe. Orain arte ez ekien zer zan txapelketa bat korridutea, orain parte hartu eta gero, nahikotxu ikasi dabe. Challenge bat dabiz korriduten, Euskadi mailakoa. Eta mutilakaz batera be korriduten dabe.

Mutilen artean bi dabiz ondo: Luis Mari Fernandez eta Mikel Zarrabe.

Junior mailan be gitxi daukaguz aurten: lau baino ez.

Amateurretan, hau da, 23 azpikoetan, batek 21 urte daukaz, beste batek 20 eta beste hamalauk 19 urte. Sano ekipo gaztea da, beraz. Hor dagoz igaz juniorretan hain ondo ibilitako Egoitz Fernandez eta Ander Barrenetxea. Horreek gero eta hobeto dabiz. Nik uste dot hemendik hilabetera edo hile bira ibiliko dirala onenakaz aspektu guztietan: bai mendian, bai kaminoan.

Noz izango dogu ziklista gazte honek gurean ikusteko aukerea?

Bagilan, kadeteak lasterketea izango dabe Igorren. Hor neskak eta mutilak hartuko dabe parte eta zelan dabizan ikusiko dogu.

Ekipoetako zuzendariak

Ziklismo eskolako zuzendariak: Ander Gorospe eta Antonio Ojanguren.

Kadeteak:

Neskak: Jose Mari Antxia.

Mutilak: Jose Manuel Zurinaga.

Juniorrak: Jabi Bengoetxea.

Nagusiak: Jose Manuel Garcia.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorren jaialdia maiatzaren 28an

Erredakzioa

Arratiko Zekorrek euren 20. urteurrena ospatuteko jaialdia antolatu dabe maiatzaren 28rako Igorren. Egitarau oparoa prestatu dabe egun horretarako. Besteak beste errugbi partidua, Katalui-

niako Poble Nou taldearen kontra jokatuko dabe bai Behintzak eta bai Zekorrek. Ez da girorik faltako bazkaria, kalejire... Bazkarirako txartelak AZ Rugby Tabernan dagoz salgai 20 eurotan edo kjidirin@yahoo.es helbide elektronikoa erosi daitezke.

ARRATIKO ZEKORREN

20. URTEURRENA

Jaialdia
Maitzak 28

EGITARAU:

12:00tan ARRATIKO BEHINTZEK - Club de Rugby Poble Nou (Katalunia).

13:00tan ARRATIKO ZEKORRAK - Club de Rugby Poble Nou (Katalunia).

14:30tan SPIDIFEN ETA IBURUPENO DEBALDEKO DASTAKETA.

15:00tan HIRUGARREN DENBORA ESKOLETAKO ATERPEAN

MENUA:

EGUR IKATZEAN ERRETAKO ARTXOA

ENTSALADA

POSTREA + KOPEA

NAI-IZAINA GARAGARDO (San Txisme errugbi zelaiari beba).....

20:00tan TRIKIPOTEOA HERRITIK ZEHA.

23:00tan ENTZIERROA TABERNARIK TABERNA.....

Bazkarian izena emoteko

Jokalari, jokalari izandakoei, bazkidei eta laguntzailei zabalduko daialdia 20€tan, tiketak salgai:

AZ rugby tabernan Igorren

Saltxa taberna zornotzan

kjidirin@yahoo.es helbidean izena emonda.

ANIMA ZAITEZ!!!!!!

Kartela urteurreneko egitarauaz.

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Pinturas Arantia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN ✓
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUETAN ✓
ONDARAIN HIGEEZINEN ASIGURUETAN ✓
Sabino Arana, 3. Floor. 94 673 73 14 - Faxa 94 673 94 01 - 48140 IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

HERRI KIROLAK

Hiru probatako desafioa Zeanurin

Erredakzioa

Maiatzaren 21ean, herriko plazan hiru probatako desafioa izango da Zeanurin. Aizkoran, txokor batzean eta txingak eroaten neurtuko dira 9 zeanuriztar, 3 laguneko 3 taldetan bananduta.

Egin beharreko lanak, aizkoran kanaerdiko 3 enbor ebagi, 100 txokor batu eta probalekuan, 25 kiloko txingakaz 30 unte egin (untea joana da, ez joan-etorria).

Plazan giroa sortzean

Desafioaren helburua giroa sor-

tzea dala dinoe antolatzaileak "Plazea animetako metodo baten bila ibili ginan, eta zer hobeto herri kirol batzuk baino! Honek geroko poteo eta ambientea ekarten dau. Ilusinoakaz hartu dogu proiektua" dinoe.

Horretarako "herri kiroletan dabizenai edo ibili diranai laguntasuna eta materiala" eskatu deutsee. Txingak Fernando Iturrimorrokoiari, egurraren fakturak ordaintzea Joko Alairi... "Eskerrak luzatu gurako geunskiez lagundu deuskuen guztiai, asko zein gitxi lagundu deuskuen guztiai" dinoe antolatzaileak.



Desafioan parte hartuko dauan taldeetako bat.

FUTBOLA

Denporaldia bere azkenetan da

Maialen Egileor

Lemoak denporaldian zehar sarritan izan dauan lekuan amaitu dau denporaldia; bederatzigarren 53 puntugaz hain zuzen be. Gujueloren kontra 4-1 galdu eban eta azken jardunaldian hiruna bardindu Leongo Kulturalaren aurka etxean. Holan esan deutso agur Lemoak denporaldiari eta Larrazabal entrenatzaileari. Antza, Josu Urrutiaren proiektuagaz bat egingo dau Athleticera bueltatuteko asmoagaz.

Arratiako neskak azken partidu

biak irabazi eta gero, seigarren amaitu dabe 47 puntugaz. Mutilai, ostera, jardunaldi bi bakarrik geldituten jakiez eta hamahirugarren dira 40 puntugaz. Beste hiru talde-gaz bardinduta dagoz, hori bai, jaitziera postuak 11 puntura daukiez.

Arratiako gazteak txapelkun

Denporaldia amaitu dauan beste talde bat, eta ondo ganera, Arratiako gazteak izan dira. Lehenengo gelditu dira eta datorren denporaldian lehenengo mailan jokatu dabe. Zorionak!

RAID

Arratiarrak podiumean Espainiako raid txapelketan

Erredakzioa

Xegiba-Zona Bike taldeak Espainiako liga barruan dagoan Espainiako txapelketan hartu eban parte apirilaren 16 eta 17an hirugarren eginez. Proba hau As Somozas herrian (A Coruña) izan zan eta hurrengo biak Oionen (Araba) eta Beloradon (Burgos) daukiez Arratiako raid taldekoak.

Espainiako txapelketan Xegiba-Zona bike taldeak hirugarren postua lortu eban abentura mailan. Proba, egun bitakoa izan zan. Guztira, 153 kilometro eta 4000 metro desnibel positibo egin eban partaideak.

Zapatuan BTT, trekking, eskaladea eta tirolinaren bidez 133 km. eta 3600m.ko desnibela

egin eban Xabi Iturriaga, Ibai Pinedo eta Gaizka Agirre Xegibakoak. Hurrengo egunean, erlojupeko proba izan eban eta 21 km. mendiko bizikleteagaz egin

behar izan eban. "Proba sano gogorra izan zan, eguraldia ona izan arren, haize zakarra eban, 100 kilometro orduko. Guk gure helburuak bete genduzan, baliza edo kontrol puntu guztiak egin eta ganera nahiko arin. Domekan, espero ez genduan opari bat euki genduan, Espainiako txapelketan podiumera igotea" azaldu deutso BEGITURI Xabi Iturriaga Xegibakoak.



Xegibakoak brontzezko domineagaz.

Bozkatu aralar

IREKI BIDEA EZKERRARI

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI

KULTUR ASTEA

Dimako Guraso Elkartearen 25. urteurrena eta kultur astea

Erredakzioa

Dimako Guraso Elkarteak 25 urte bete ditu eta urteurrena ospatuteko maiatzaren 27tik bagilaren 3ra arte kultur astea antolatu dau. Eskoleak be bat egin dau ospakizun honegaz eta hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Guraso alkartearen egitaraua

Maiatzak 27, barikua
18:30ean, Aerobic-a.

Maiatzak 28, zapatua

11:00etatik 13:00etara, tailerrak eta tirolina.

Maiatzak 29, domekea

Dimako Guraso Elkarteak 25. urteurrena.

11:00etan, argazki erakusketea (antxinako eskolea).

12:00etan, "Gure txikitako jolasak".

13:00etan, triki poteoa.

14:30ean, bazkaria.

17:00etan, erromeria.

Bagilak 3, barikua

18:30ean, jantza afrikarrak.

Astebarrukoa eskolak antolatuko dau

Astebarrukoa eskoleak antolatutuen dau eta zer zein egunean izango dan zehaztu barik daukie BEGITU inprentan izan orduko. Dana dala, euskal jolas eta tailerrak; antzerkia, bertso eta kantuen emonaldia; galzorian dagozan bertako animalien ganeko berbaldia; erreka eguna; zumeltza tailerra; txalaparta tailerra eta ikasleen bideomontajeak osotuko dabe egitarau hau.

AISIA

Txilipotoiak asti taldea Diman

Iruñe Garzia

Txilipotoiak izeneko asti talde barria sortu dabe Diman. "Hamabi eta 18 urte bitarteko gazteak egiten dau behar eta bere helburua gazteai natura eta aisiaz disfrutatuko aukerea emotea da" azaldu deutso BEGITU asti taldeko begirale batek. Irabazi asmorik bako taldea da eta erronka nagusia "gazteak beren inguruaz gozatzea da".

Asti talde barriak igazko urrietan egin eban bere lehen ekintza. Dimako inguruetatik ibilalditxu bat egin eta gero, Inunganeko txabolan pasau eben gaua. Maitane Izak kontau deuskunez, "bertan gaubela bat egiteko asmoa genduan, baina eguraldi txarra egin eban ez beste jolas eta proba batzuk egin genduzan".

Hurrengo egunean alkarregaz bazkaldu ostein herrira bueltatu ziran. Begiraleen esanetan, "espe-rientzia ikaragarria izan zan".

Txilipotoiak asti taldea osotuten dabenen asmoa udan beste ekintza luzeago bat antolatzea da. Ekintza honetan parte hartzeako konbita zabalik daukie Dimako gazteak.

Zastaparrak Mendigorriara

Zastaparrak Asti Talde veteranoak, barriz, 16. udalekua antolatuko dau aurten. Mendigorriara (Nafarroa) bueltauko dira uda honetan.

Abuztuaren 1etik 12ra bitartekoak izango dira udalekuak eta 6-16 urte bitarteko 60 bat ume eta gazterentzako lekua egongo da.

Matrikulazio epea maiatzaren 16tik 20ra da eta izena emateko goizeko 10:00etatik 14:00etara deitu behar da 681 116 991 telefonora. Prezioa igazko berbera: ume bakarra, 202€ eta neba-arrebak, 357€.

Mendigorriara doaz aurten Zastaparrak.

DISKOA

Borja Estankona: "disco hau piztuera bat da"



Jimmy Arrabit, Borja Estankona eta Itxaso Etxebeste.

Erredakzioa

Maiatzaren 10ean aurkeztu eban Bilbon Borja Estankonak (Artea 1979) bakarkako bere lehenengo diskoa *Estankona* izenburukoa. Diskoa Baga-Biga etxeak kaleratu dau eta bertan hamar kantu eta bideoklip bat batzean dira. Itxaso Etxebeste (Katamalo) baju-joleak eta Jimmy Arrabit (Itoiz, King Mafrundi...) bateria-joleak be hartzean dabe parte diskoan. Bideoklipa Maite Yurrebaso igorretarrak egin dau.

Diskoaren aurkezpena Igor bere anaiak egindako lehenengo kantua joz hasi eban Borja Es-

tankonak. Arean taldearen ez bezala, disko hau "biluzia" dala esan eban Baga-Bigako Ritxi Aizpuruk. "Lan honetan Estankona dan modukoa agertuten da, ekipaje barik" azaldu eban.

Arean taldea desegin zanean "lehorte" artistikoa bizi izan eban esan eban Arratiakoak. "Disco hau piztuera bat da. Estetikoki zuri-beltzean eta modu sentziloan dago eginda. Ekipaje gitxigaz" azaldu eban arteztarrak. Indarrez bueltatu dala be esan eban, ibilbide luze bat egiteko asmoz.

Oraindino, datak zehaztu barik egon arren, zuzenekoak emotekoa da Borja Estankona.

EUSKERA

"Hemen euskeraz gusture" egitasmoa martxan Lemoan

Erredakzioa

Lemoako Udalak Lemoako merkataritza eta ostalaritza euskera sustatzeko "Hemen euskeraz gusture" egitasmoa aurkeztu dau. Honen helburua, euskerazko zerbitzua normaltasun osoz emateko moduan dagozan saltokiak zeintzuk diran jakinaraztea da.

Identifiketako ikurrak

Saltoki honeek identifiketako ikur bi egongo dira. Batek komertzio horrek harrera euskeraz normaltasun osoz eskeintzen dauala

adierazoten dau eta besteak, harrera euskeraz neurri baten egin daikiela. Hau da, komertzio horretan, euskeraz ulertuten dabela edo ikasten dabizala eta astiro egiten dabela berba.

Zinea euskeraz Lemoan

Barton filmsek Bizkaiko Foru Aldundiagaz lankidetzan bere filmen euskerazko bersioen emonaldiak dabiz egiten Bizkaiko hainbat herritan; tartean, Lemoan. Holan, maiatzaren 26an, *Munduaren bira, doan!* eskolan ikusi ahal izango da eta 29an *Mystikal* Gaztelekuan.

MENDITIK DESERTURA

Bagilan Sahararako karabaneia

Erredakzioa

Menditik Desertura alkattea Saharar herriagaz behar egiteko sortu zan eta Tolosaldea Sahararekin alkatetari lagunduten deusteo SEADeko lurralde askatueta eskola bat eregiteko proiektuan. Bagilan Bilbotik urtenda Saharara doan karabaneia parte hartuko dabe arratiarrak hango jenteari botikak, janaria, erropak eta materiala eroateko. Materiala batzeako Arratiako hainbat lekutan ipiniko dabez kuxak jenteari egoki ikusten dauana emoteko.

Eskolea lurralde askatuan

Saharar biztanleria hiru zonaldeetan bizi da. Batzuk Marokok okupatutako lurraldean bizi dira, beste batzuk Argeliako errefuxiatu eremuetan eta hirugarren taldea SEADen eskuetan dagoan eremu askatuan. "Azken hileotan lurralde askatueta mobidu dan biztanle kopurua handia da eta eskola baten premia ikusi genduan" azaldu deutso BEGITURI Mikel Garcia Menditik Desertura alkatetakoak.

Horretan, Tolosaldea Sahararekin alkatetari dihardu eta Arratiako proiektu honetan sartu dira. Eskolak 70.000 euroko aurrekontua dauka. "Proiektua martxan ipinteko gitxienez % 75 behar zan eta lortu da % 75 hori. Diru guztia batuta eukitea urtearen amaierarako espero dogu" gehitu dau Garciak.



Saharar biztanleria hiru zona honeetan bizi da.

KULTUR ASTEA

Oskorri Lemoako kultur astean

Erredakzioa

Oskorri taldeak konzertua eskeiniko dau Lemoan hilaren 28an. Ekitaldi hau Lemoako kultur astearen egitarauaren barruan dago. Izan be, maiatzaren 23tik 29ra, Lemoan kultur astea antolatu dabe Udalak eta eskoleak. Antzerkia, berbaldiak, musika eta beste ekitaldi askok osotuko dabe eskeintzea.

Aste horretan, liburutegi zerbitzua eukiko dabe umeak eskolan. Liburuak hartu eta liburutegiko karneta egin ahal izango da bertan. Maiatzaren 27an liburu batzuen zozketea egingo da.

Egitaraua

Maiatzak 23, astelehena

15:00etan, Kirolaria Eskolan "Emakume arraunlariak".

19:00etan, umorezko antzerkia Pantxika Lamur-egaz. Jubilauen etxean.

Maiatzak 24, martitzena

09:15ean, Literatura solasaldia eskolan: Yolanda Arrieta.

14:45ean, J.B. Eguskiza Meabe ikastetxeko ikasleen emonaldia kiroldegian.

Maiatzak 26, eguena

09:15ean, filma eskolan *Mundua-*

ri Bira, doan!

19:00etan, Lemoako sahararren berbaldia "La causa del Sahara". Jubilauen etxean.

Maiatzak 28, zapatua

20:00etan, konzertua Oskorri. "The

Pub ibiltaria". Oskorri taldearen proiektu honetan Lemoako Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolak hartuko dabe parte. Kiroldegian.

Maiatzak 29,

17:30etan, *Mystikal* filma euskeraz Gaztelekuan.



Natxo de Felipe Oskorriko abeslaria.

DUNBA

Hiru egun Lekeitio

Jon Olibares, Sara González, Jone Núñez, Badid Abah, Medya Mohamed, Olatz Maruri, Nerea Olivares, Sheila Del Bosque, Josu Bilbao, Oihana Atucha, Unai Madrazo, Paul Núñez, Jon Orbe, Iزارo Zurinaga eta Iraitz Madariaga

Apirilaren 5, 6 eta 7an Igorreko 6. mailako ikasleak Lekeitiora

joan ginan hiru egun pasetan. Aterpetxearen izena "Trinkete aterpetxea" zan.

Heldu bezain laster ordutegiak eta arauak azaldu euskuezan, eta ostean, Lekeitio ezagutzera joan ginan. Arrastian arrantzaleen itsasontzi bat barrutik ikusi eta gero, Unai Basurkoren PAKEA belauntzian sartu ginan. Unaigaz be berba egiten egon ginan. On-

doren izozki bana jan genduan eta portura abiatu ginan arrantza egitera, baina arrainik harrapatu ez! Bapo-bapo afaldu eta gero, jolasak egin genduzan, ze ondo pasau genduan!

Hurrengo egunean arraun egin genduan, hondartzan bainau, Ufff ze hotza! Eta Talaia mendira igo ginan, ze nekatuta amaitu genduan! Baina gauetan

diskotekea egoan eta indar batzuk gorde genduzan jantza egiteko...

Azken egunean, San Juan kofradian egon ginan arrainen salmentea ikusten, eleizea bisitau, pisten jolasa heritik zehar eta bazkaldu ostean Igorrera.

Amaitzeko, eguraldia zora-

garría izan zala, bazkaria gozozkoa, eta oso ondo pasau genduala Lekeitio aitatu gura dogu.



Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak.



Lekeitioko portua.

AGENDEA

MAIATZAK 18

DIMA

Udalekuetan izena emoteko epea zabalik bagilaren 3ra arte. Udalekuak garagarriaren 11tik 15era eta 18tik 22ra.

LEMOA

17:30etik 19:30era, Barreterapia jubilauren etxeko lehenengo solairuan.

ZEBERIO

Udalekuetan izena emoteko epea zabalik maiatzaren 31ra arte. Udalekuak bagilaren 27tik garagarriaren 8ra.

MAIATZAK 21

BEDIA

09:30ean, urteera Oñatiko kobazuloetara. Udaletxe ondoko aparkalekuan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eskalada ikastaroa. Egino.

16:30ean, bola botaldia. Eskualdeko Bola Txapelketa.

UBIDE

Jaiobarriai ondo etorria. 19:00etan pailazoak Ipo eta Tomas.

ZEANURI

17:30ean, "Zeaniztarran arteko desafio mundiala". Probalekuan.

MAIATZAK 22

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eskalada ikastaroa. Egino.

UBIDE

Amexier Mendi Taldeak antolatuta, Ulibarri urtegiari buelta.

MAIATZAK 23

LEMOA

15:00etan, Kirolaria eskolan "Emakume arraunlariak". 19:00etan, umorezko antzerkia Pantxika Lamur-egaz. Jubilauren etxean.

Bagilaren 3ra arte, jubilauren biajean izena emoteko epea zabalik. Biajea urrietan izango da.



Bertso bazkaria Maia eta Iturriagagaz Artean

Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolariak izango dira maiatzaren 28an Arteako Herriko Bentan, Artea Kirol Kultur Taldeak (AKKT) antolatu dauan bertso bazkarian bertsoak botaten eta giroa animetan. Sarrerak bezpera arte egongo dira salgai Herriko Bentan bertan eta prezioa 25 eurokoa izango da bazkideentzat, 30 euro bazkide ez diranantz eta 10 euro 14 urte arteko umeentzat. Bazkal aurretik, giroa berotuten joango da fronteniseko finala eta osteko kalejireagaz.

MAIATZAK 24

BEDIA

Maiatzaren 26ra arte, kirolorientzako osasun azterketea frontoiko aldageletan.

LEMOA

09:15ean, Literatur solasaldia eskolan: Yolanda Arrieta. 14:45ean, J.B. Eguskiza Meabe ikastetxeko ikasleen emonaldia kiroldegian.

MAIATZAK 25

LEMOA

17:30etik 19:30era, Barreterapia jubilauren etxeko lehenengo solairuan.

MAIATZAK 26

BEDIA

Prezio tasatuko etxean zozketan parte hartzeako dokumentazioa aurkezteko

azken eguna.

17:00etatik 20:00etara, "Erlojua" tailerra liburutegian.

LEMOA

09:15ean, filma eskolan *Munduari Bira, doan!*

19:00etan, Lemoako sahararren berbaldia "La causa del Sahara". Jubilauren etxean.

MAIATZAK 27

ARTEA

21:30ean, kontzertua Raices del Rock & Roll taldea AKKTren lokalean.

DIMA

27tik bagilaren 3ra arte kultur astea. Ikusi egitaraua 16. orrialdean.

IGORRE

19:30ean, azken barikua, Etxeratek antolatuta presoen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

20:00etan Katastrofen taldearen *Soy tan feliz que apenas puedo respirar* antzezlan Karabie Gaztebtxean.

MAIATZAK 28

ARTEA

10:00etan, fronteniseko finala, ostean kalejire. 14:00etan, Bertso bazkaria Herriko Bentan. Iturriaga eta Maia.

BEDIA

09:00etan, Orienteering plazan. Izen emotea maiatzaren 20ra arte liburutegian.

IGORRE

22:00etan, zinea *Piratas del Caribe: en mareas misteriosas* Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:30ean Zumeltzara urteroko bizikleta igoera Karabie Gaztebtxetik.

20:00etan, Oskorriren kontzertua "The Pub ibiltaria". Lemoako Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolak hartuko dabe parte. Kiroldegian.

MAIATZAK 29

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Rango*. 19:30ean, zinea *Piratas del Caribe: en mareas misteriosas* Lasarte Aretoan.

LEMOA

17:30ean, *Mystikal* filma Gaztelekuan.

BAGILAK 1

LEMOA

17:30etik 19:30era, Barreterapia jubilauren etxeko lehenengo solairuan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALTZEAN DOT

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, koltxoia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonora 635 007 632.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

LAN ESKEINTZA

BEHAR BILA

Goizetan behar egiteko prest nago. interesatuak deitu 676 370 409 (Maite).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Klase partikularrik emoten dodaz maila guztietan, matematiketa, fisika, marrazketa teknikoak, eta abar. Ikasketa

teknikoak egitera doazen ikasleak prestetan dodaz. Deitu 605 746 487 telefonora.

ESTETIZISTEA BEHAR DA

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

EROSI

EROSTEN DOT

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Udalak emondako *Fasioren Mendea* CD-DVD-Liburua.

Leire Orue (Areatza)
Maria Jesus Iturriaga (Artea)



2

Baga-bigak emondako Borja Estankonaren CD bana.


David Antzuola (Gasteiz)
Malgorzata Ziemkiewicz (London)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Emakumezkoen izena. 2.- Mantsoa. Oxigenoa. 3.- Seinale. Erbioa. 4.- Izan aditz jokoan. Romuloren anaia. 5.- Zergaitiko. 6.- Zati. (Atz.) Birritan, bular. 7.- Lutezioa. Lutu. 8.- Lehenengo bokala. Kimu. 9.- Pluraleraz, pozik dagoana.

GOITIK BEHERA

1.- Bokala. Ezin hobea. 2.- Loak hartu. Bokala. 3.- Gorputz atal bat. Eguzkiaren jainkoa. Mililitroaren sinboloa. 4.- Atautea. 5.- Sodioa. Ezetza. Kolore arrekoinsektu hegalaria. 6.- Bokala. Eskuzabala. 7.- Gogoratu. Konsonantea.



Topau zazpi sube mota.

A	R	K	O	L	E	T	O	S	A
B	E	I	K	A	B	O	L	E	D
H	A	S	P	I	D	A	M	A	I
O	R	N	E	G	A	M	U	L	A
S	O	R	A	B	I	A	Z	E	R
U	G	E	R	K	U	D	A	B	A
T	O	Z	I	O	O	S	T	A	L
E	H	A	P	B	U	N	A	K	E
G	A	R	I	R	G	A	D	S	K
I	Z	O	L	A	E	P	E	A	J
K	O	B	L	A	I	S	T	K	U
U	D	I	Z	T	B	O	R	E	K
J	O	B	O	A	U	Z	O	M	A
X	O	I	G	R	E	B	L	O	Z
I	A	F	O	K	A	L	O	S	O

"Jainkoak eta sexua"

Aitziber



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte

- Babak
- Ray
- Aranda
- Akr
- Gulesak
- Arandaga
- Grandele
- Leiz
- Massana

sein

LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola

TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balneario 41, A, BTE, B

Lehendakari Agirre 31
Telefonoa 94 673 71 32
48140 IGORRE (Biskaiak)
garantxe@euskaltel.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela eskolaraz zein erdalaraz

Garbe, 10 - 48140 Igorre (Biskaiak)
telefonoa 94 631 54 31, Faxa 94 673 70 83
e-posta: urakua@euskaltel.net

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 7.
48140 Igorre (Biskaiak) Telefonoa: 94 622 64 23

ALKOHOLIKO ANONIMOAK

ARRATIAKO TALDEA

Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu

BIXER TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
kultura elkartea

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

NAIARA HORTZ KLINIKA

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 40 14 IGORRE BIZKAIA

Igorre

BATZAR EGUNAK:
epautesak 20etatik 22etara
Udaltzarke arkapetan
EPA-ko lokalak

KONTAKTATZENO TELEFONOA:
690 139 044

INCOESA

Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante Montero

Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

MIREN EZKURDIA

"Lanbide Heziketea aukera parebakoa da"

Lanbidea aukeratutea erantzukizun handiko ebatzia da eta pertsona oraindino umea edo sano gaztea izaten da ebatzia hartzerakoan. Nahiz eta bizitzan zehar lanari jagokozan ebatziak askotan aldatu behar izaten diran eta ezer ez dan betiko, argi dago ikasketak aukeratutea inplikazio handiko ebatzia dala.

Miren Ezkurdia Dimakoak Galdakaoko Andramari Institutuan egiten dau behar lanbide orientazioa emoten. Andramari Arratiari jagokon Lanbide Heziketako institutu publikoa da. Lanbide Heziketaren argi-ilunen barri, argiak ilunak baino gehiago bere eretxian, egiten dau berba alkarrizketa honetan.

Erredakzioa

Sasoi baten, arrazoi bat dala edo bestea dala unibersidadera joan gura ez ebenak egiten eben Lanbide Heziketea. Aldatu egin da hau ala oraindino gehiengo batek bigarren aukera moduan jotzen dau?

Gure seme-alabak unibersidadean karrera bat egitea gura dogu askotan gurasook, baina pertsonak ez gara bardinak eta batzuek ezin dabe, beste batzuk ez dagoz hain ahalegin handia egiteko prest (motibazio edo interes faltan), edota ikasketako modu pratikoagoa daukie eta ez ditue ikasketa teorikoak egin gura. Kasu horreetan Lanbide Heziketea aukera parebakoa da.

DBH egin ostean, erdi mailako ziklo bat egin daike ikasleak. Hortik aurrera aukera bi dagoz: lanera sartu edo goi mailako ziklo

baten prestakuntzea jarraitu.

Beraz, Lanbide Heziketa DBH egin ostean egin behar da, DBH ateratzen ez dabenak, ez daukie ezelango aukerarik?

DBH titulua euki ezean, Lanbide-Hastapenerako Programak (LHP) egin ahal dira eta gero erdi mailako ziklo bat .

"Europako Batasunaren

ikerketen arabera, lan

merkaduan lanbide

heziketako teknikariak

unibersidadeko

tituludunak baino askoz

gehiago behar dira"

Heziketa ziklo bat egiteko zenbat ikasturte behar dira?

Heziketa ziklo batek ikasturte bi irauten ditu. Urte bat eta erdi institutuan egiten da, eta gero hiru-lau hilabeteko praktikak egiten dira enpresetan. Goi mailako ziklo bat egin ondoren unibersidadera joan ahal da.

Unibersidadera joatea aukera bat da, baina uste dot errezago topatzen dabela beharra Lanbide Heziketa egin dabenak, ezta?

Europako Batasunaren ikerketen arabera, lan merkaduan lanbide heziketako teknikariak unibersidadeko tituludunak baino askoz gehiago behar izango dira. Beraz, krisialdi amaitezin honek iraun bitartean, eta gero be bai, aukera ona da Lanbide Heziketea. Bai orain eta baita be etorkizunari begira.

Zeintzuk dira Lanbide Heziketan ikasi daitezkean

lanbideak?

Lanbide Heziketan 23 lan arlo edo familia profesional dagoz. Interneten ikusi daitezke, Lanbidez, Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketarako webgunean. Galdakaoko Andramari Institutuan Administrazio, Telekomunikazio eta Mekanizazio familiak lantzean dira.

Zein da zuen ikasleen profila?

Zoritxarrez, emakume eta gizonen estereotipoak jarraitzen dira. Administrazioan ikasle gehienak neska dira, eta telekomunikazio eta mekanizazioan barriz, mutilak. Enpresak esterotipo horreek apurtzea eta alderantzizkoa eskatzen dabiz.

Gure ikasleak, Arratiako enpresa ugarian egiten dabez praktikak. Arantzazun (Comercan), Artean (Ingenieria de Metrologia SA), Bedian (Electricidad Telga, Fextor Bedia, Incoesa Consultores Industriales, Sutargiburu), Igorren (Aliaza ,Tecnichapa) eta Lemoan (Industrias de Mecanizado Germany, Laron Mecanizado).

Zuen ikasle laneratzeko datuak?

Ikasketa honek amaitutakoan, lanpostua lortu dabenen datuak oso onak izan dira krisialdia hasi baino lehen: administrazioan arloan % 86, mekanizazioa eta mantenimentuan % 91, eta telekomunikazioetan % 87.



eskakizun bat...

... ez zaigula ezer falta.

- Bedia udalherriaren erdialdean eta natur gune batetan estrategikoki kokatua.
- Komunikazio, zerbitzu eta prestakuntza ezin hobek.
- Bilbotik 15 min. eta Galdakaoko Ospitaletik 2 minututara.
- Punta puntako teknologiaz osaturiko instalakuntzak.
- Mundu mailan Laga kontrol sistemaren lehen ezarriera.
- 15 urtetako esperientzia.
- Arreta pertsonalizatutako talde mediku multidiziplinarra.
- Gure nagusien zaintzan inplikaturako eta konprometatutako pertsonal kualifikatua...

...eta batez ere maitasunez, maitasun osoz.

JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA Bizkaia
tel. 94 631 31 30 · www.jandoniz.com

apirilaren 1^{etik}
zabalik